

Larramendi Ikastolako delituak prebenitzeko eskuliburua

AURKIBIDEA

1. Sarrera	1
2. Helburua	3
3. Eskuliburua betetzea: erakunde egitura	4
4. Salaketen komunikazioa eta tratamendua	5
5. Diziplina prozedura	5
6. Prestakuntza	6
7. Arriskuen mapa	6
8. Compliance Penal sistemaren irismena	6
9. I ERANSKINA: Kode Etikoa	7
10. II ERANSKINA: Erosketak egiteko eta hornitzaileak hautatzeko prozedura	16
11. III ERANSKINA: Barneko Informazio Sistemaren Politika	20
12. IV ERANSKINA: Barneko Informazio Sistemaren Prozedura	22
13. V ERANSKINA: Lan kontratazio eta promozio politika.....	31
14. VI ERANSKINA: Salatzailearen estatutua.....	35
15. VII ERANSKINA: Erabiltzaileentzako salaketa kanala erabiltzeko gida.....	36



Larramendi Ikastolako delituak prebenitzeko eskuliburua

1. Sarrera

Arrisku penalen prebentziorako eskuliburu honetan, **Larramendi Ikastola** kooperatibak delituak kudeatzeko eta prebenitzeko dituen printzipioak jasotzen dira, baita **Betearazpen Batzordearen** egitura eta eginkizunak ere, 2015eko martxoaren 30eko 1/2015 Lege Organikoa (Zigor Kodearen 1995eko azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoa aldatzen duena) betez.

Zigor Kodeak, 31.bis 5 artikuluan, betetze-programek beren balioa frogatzeko bete behar dituzten baldintzak ezartzen ditu:

1. Prebenitu beharreko delituak gerta daitezkeen alorretako jarduerak identifikatuko dituzte.
2. Pertsona juridikoaren borondatea osatzeko, erabakiak hartzeko eta erabaki horiek betearazteko prozesua zehazten duten protokoloak edo prozedurak ezarriko dituzte.
3. Finantza-baliabideak kudeatzeko eredu egokiak izango dituzte, prebenitu beharreko delituak eragozteko.
4. Arriskuen eta egin daitezkeen ez-betetzeen berri eman beharko diote prebentzio-ereduak funtzionatzen duela eta betetzen dela zaintzeko ardura duen erakundeari.
5. Diziplina-sistema bat ezarriko dute, ereduak ezartzen dituen neurrien ez-betetzeak behar bezala zehatzeko.
6. Eredua eta horren aldaketak —egiten badira— aldian-aldian egiaztatuko dituzte, baldin eta haren xedapenen arau-hauste aipagarririk gertatzen bada, edo erakundean, kontrol-egituran edo garatutako jardueran aldaketarik egiten bada eta, ondorioz, ereduan aldaketak egitea beharrezkoa bada.

Kooperatibak prozedurak eta kontrolak ezarri ditu langile guztiek eta haientzat lan egiten duten pertsonak arrisku penala izan dezaketen jokabideei aurrea hartzeko.

Eskuliburu honen helburua da Kooperatibako langileek delitu-egintzei aurrea hartzea eta esparru horretan kontrola izatea, Zigor Kodean jasotako eskakizuna betez.

Larramendi Ikastolako delituak prebenitzeko eskuliburua

Delituen prebentziorako ereduak arriskuei aurrea hartzeko, jokabideak hautemateko, arriskuen aurrean jarduteko eta jarraipena egiteko funtzioak bete ditzan, Kooperatibak printzipio orokor hauek hartu ditu oinarri:

- Hautemandako arriskuak prebenitzeko kontrolak ezartzea.
- Eredua gainbegiratu delako bermatzeko neurri egokiak ezartzea.
- Funtzioak bereiztea bermatuko duten prozedurak betetzea eta ezartzea.
- Arrisku penalek ekar ditzaketen arriskuak eta jarduerak etengabe gainbegiratzea.
- Barne-politikan islatutako jokabide-arauak eta onartutako printzipioak zabaltzea, eta horiekiko sentsibilizatzea.

2. Helburuak

Eskuliburu honetan, Kooperatibaren jarduna arautzen duten politikak eta prozedurak jaso dira, eta legezko ordezkari, zuzendariei, enplegatuei, laguntzailei eta bazkideei aplikatzen zaizkie. Halaber, Zigor Kodean tipifikatutako delituei aurrea hartzeko ezarritako kontrol-sistemak jasotzen ditu.

Identifikatutako arriskuak arintzeko ezarritako kudeaketa-sistemak eta prebentzio- eta detekzio-kontrolak hartzen ditu oinarri Kooperatibak, arrisku penalak prebenitzeko.

Hauek dira eskuliburuaren helburuak:

- Delitu bat egiteko arriskua murriztu edo arinduko duen **prebentzio- eta kontrol-sistema** ezartzea.
- Kooperatibako langile, bazkide eta laguntzailei azaltzea eskuliburuan jasotako xedapenak urratuz gero diziplina-neurriak ezarriko direla (behar diren kasuetan eta moduan), eta horiekiko **sentsibilizatzea**.
- Idatziz eta publikoki jasotzea Kooperatibak legez kanpoko edozein jokabide **gaitzesten duela**, eta azpimarratzea jokabide etikoak direla helburuak lortzeko funtsezko balioak.
- Prebentzio- eta detekzio-kontrolak **ezartzea**.

Larramendi Ikastolako delituak prebenitzeko eskuliburua

3. Eskuliburua betetzea: erakunde-egitura

Kooperatibaren administrazio-organoak Zigor Arloko Arriskuak Prebenitzeko Eredua ezartzeko, gainbegiratzeko eta kontrolatzeko jarduera koordinatzeko beharrezko neurriak har ditzan, **Betearazpen Batzordea** sortu da, eta haren ardura izango da eskuliburuko jarraibideak betetzen direla egiaztatzea eta haien jarraipena egitea.

Betearazpen Batzordeko kideek independentziaz eta zintzotasunez jokatu beharko dute agindutako eginkizunei ekitean. Orobat, konfidentziasunez tratatuko dute beren eginkizunetan erabiltzen duten informazioa.

Osaera

Betearazpen Batzordeko kideak indarrean dagoen Artezkaritza Kontseiluan lehendakari kargua, lehendakari orde kargua, diruzaina kargua eta idazkaria kargua duten kideek osaturik egongo da.

Hauek dira Betearazpen Batzordearen eginkizunak:

- Arrisku penalak prebenitzeko ezarritako neurrien jarraipena egitea.
- Delituak Prebenitzeko Ereduaren funtzionamendua gainbegiratzea.
- Egindako jardueren berri ematea Kontseilu Errektoreari.
- Eskuliburuko printzipioen eta Kooperatiban ezarritako kontrol-neurrien zabalkunde egokia bermatzea.
- Prebentzio-ereduari eragin diezaioketen lege-aldaketak eta gainerako berrikuntzak aztertzea.
- Kode Etikoa eguneratuta dagoela bermatzea eta, dagokionean, beharrezkoak diren aldaketak proposatzea.
- Zehapen-prozedura betetzeko, diziplina-neurri egokiak aplika daitezen proposatzea.
- Eredua eta horren aldaketak —egiten badira— aldian-aldian egiaztatzea, baldin eta haren xedapenen arau-hauste aipagarririk gertatzen bada, edo enpresan, kontrol-egituran edo garatutako jardueran aldaketarik egiten bada eta, ondorioz, ereduan aldaketak egitea beharrezkoa bada.

Larramendi Ikastolako delituak prebenitzeko eskuliburua

4. Salaketen komunikazioa eta tratamendua

4.1. Jakinarazpenak Betearazpen Batzordeari

Delituren baten edo Kode Etikoan eta Kooperatibaren politiketan jasotako printzipio eta balioen bat urratu izanaren zantzurik edo susmorik badu norbaitek, Betearazpen Batzordeari jakinarazi beharko dio helbide elektronikoko honen bidez: www.larramendi-ikastola.eus/buzoi-etikoa

Betearazpen Batzordeak informatzailearen konfidentzialtasuna bermatuko du.

4.2. Barneko Informazio Sistemaren prozedura

Jasotako salaketak Kooperatibak ezarritako *IV ERNASKINA. Barneko Informazio Sistemaren prozedura* atalaren arabera izapidetuko dira (ikus erantsitako dokumentua).

5. Diziplina-prozedura

5.1. Zehapen-prozedura

I ERANSKINEKO Kode Etikoan eta eskuliburu honetan jasotako printzipioak eta balioak betetzen ez badira, lan-zehapenak ezarri ahal izango dira, onartuta dagoen eta Kooperatibako langileei galdatzekoa den araudia aplikatuz, gainerako zehapen administratiboak edo penalak eragotzi gabe.

Zehapen-prozedura **Betearazpen Batzordeak** aplikatuko du, **Kontseilu Errektorearen** bitartez eta aplikagarri den hitzarmenean eta indarrean den lan-araudian aurreikusitako zehapenak aplikatuz.

6. Prestakuntza

Betearazpen Batzordeak bermatuko du eskuliburuaren hartzaile guztiek beharrezko prestakuntza jasotzen dutela Kooperatibak arrisku penalak arintzeko

Larramendi Ikastolako delituak prebenitzeko eskuliburua

ezarritako printzipio etikoei eta politikei buruz.

Horretarako, Kooperatibak neurri hauek hartu ditu eskuliburuaren berri emateko:

- Eskuliburuko printzipioak Kooperatiban zabaltzea.
- Politikak eta prozedurak posta elektronikoz jakinaraztea eta iragarki-taulan jartzea.
- Kontratatzean Kode Etikoa entregatzea.

7. Arriskuen mapa

Kooperatibak arriskuen mapa bat du excel formatuan, eta, bertan, prebenitu beharreko delituak zer jardueratan gerta daitezkeen identifikatu eta ebaluatzen dira.

8. Compliance penal sistemaren irismena

Barneko salaketen kanala tresna bat da, Ikastolako langileek eta Ikastolarekin lotura duten kanpoko pertsonak, modu anonimo eta konfidentzian, ahozko edo idatzizko bitartekoen bidez, ikastolaren barruan arau-haustea edo irregulartasuna izan daitekeen edozein jokabide edo jarrera salatzei aukera izan dezaten.

Larramendi Ikastolako delituak prebenitzeko eskuliburua

9.- I ERANSKINA: KODE ETIKOA

9.1.- Aplikagarritasuna

Kode Etiko hau Larramendi Ikastola sozietatean —aurrerantzean, Kooperatiba— aplikatuko da, eta hartako langile, zuzendari eta gobernu-organoetako kide guztiak lotetsiko ditu, baita plantillan sartuta ez dauden langile edo laguntzaile guztiak ere.

Kooperatibaren administrazio-organoak babesten du kode hau, eta Betearazpen Batzordeak du betetzen dela gainbegiratzearen ardura, horretarako sortua baita. Kooperatibari zerbitzuak ematen dizkioten enpresa edo pertsona azpikontratatuerei ere betetzeko eskatuko zaie, kontratu bidez.

9.2.- Helburua

Kooperatibaren asmoa da langile guztien jokabidea legearen araberakoa izatea, profesionala, etikoa eta arduratsua, beharrezkoa baita gure izen ona eta sinesgarritasuna ez galtzeko eta indartzeko, gure balio-katean parte hartzen duten edo eragiten duten interes-talde guztien aurrean —ikasleak, langileak, hornitzaileak, negozio-eredua garatzen dugun sozietateak eta bazkideak—.

9.3.- Printzipioak eta balioak

Kooperatibako kide guztiek ulertu eta bete behar dute kode honetan lan-ingurunean eta negozioaren esparruan jarduteko moduz jasotakoa. Konpainiaren barruko lan-harremanek **printzipio hauek** dituzte oinarri:

- Legezotasuna: enpresaren eta langileen arteko legezko harremanak lege-aginduak betez gauzatu behar dira.
- Errespetu, ekitate eta duintasun erabatekoa, langile, laguntzaile, bazkide, hornitzaile, lehiakide eta Kooperatibari lotutako gainerako hirugarrenetikiko tratuan.
- Gardentasuna, objektibotasuna eta profesionaltasuna, jarduera guztien garapenean eta interes-taldeekiko harremanetan.
- Intimitatea, datuen babesa eta isilpeko informazioa.
- Osasunarekiko, segurtasunarekiko eta ingurumenarekiko konpromisoa.



Larramendi Ikastolako delituak prebenitzeko eskuliburua

Kooperatibako langile eta laguntzaile guztiek ezagutu eta errespetatu behar dituzte **printzipio** horiek, eta barneratu eta beren jarduera guztietan islatu behar dituzte.

a) Legezatasuna: legea eta barne-araudia zorrotz betetzea

Legea obeditu eta bete behar da, baita Kooperatibako barne-araudia ere. Ez da legez kanpoko jardunbiderik onartzen, ezta araudiaren ez-betetzerik ere; beraz, egoera horietakoren bat hautematen bada, berorren berri eman beharko da, behar bezala.

Indarrean diren **prozedurak eta politikak** bete beharko dira, eta, aldaketa- edo hobekuntza-beharrik identifikatuz gero, dagokion arduradunari proposatu ahal izango zaizkio.

Langile edo hirugarren batek legez kanpoko jarduera, arau-hauste edo araudiaren ez-betetze bat salatzen badu, ez da haren aurkako inolako errepresaliarik onartuko.

b) Errespetu, ekitate eta duintasun erabatekoa, langile, laguntzaile, bazkide, hornitzaile, lehiakide eta Kooperatibari lotutako gainerako hirugarrenetikiko tratuan

Kooperatibaren eta bere langileen jardueretan erabat eta etengabe errespetatuko dira Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean jasotako giza eskubideak eta askatasun publikoak.

Kooperatibako kideek errespetuz, profesionalki eta adeitasunez tratatu behar dute elkar, lan-giro atsegina eta segurua sortzeko, pertsonak beren onena ematera animatzeko eta gizarte-giro egokia eta errespetuzko bizikidetzeta lortzen laguntzeko. Orobat, errespetuan eta lankidetzan oinarrituko dira Kooperatibako kideen eta hornitzaile, kontratista, bazkide komertzial edo kanpoko laguntzaileen arteko harremanak.

Lankidetzeta eta talde-lana ezinbestekoak dira Kooperatibak bere helburuak lor



Larramendi Ikastolako delituak prebenitzeko eskuliburua

ditzan eta ahalik eta ondoen aprobetxa ditzan erakundearen gaitasunak, baliabideak, ezagutzak, trebetasunak eta esperientzia. Beraz, erakundeak lankidetzara eta talde-lana bultzatu, ahalbidetu eta sustatzen ditu, edozein dela ere jardueraren area funtzionala.

Ez da onartuko Kooperatibako langileen edo harekin lotutako hirugarrenen kontrako jokabide iraingarririk, larderiazkorik, diskriminatzailek, maltzurrik, umiliagarririk, mespretxuzkorik, jazarpenezkorik eta abar. Horrelako jokabiderik hautemanaz gero, salatu egingo da. Gizabanako eta entitate guztiak diskriminaziorik gabe eta objektibotasunez tratatuko dira, eta debekatuta dago haietako inori informazio pribilegiatua eta mesede-tratua ematea.

c) Hautaketa, sustapena eta ebaluazioa

Kooperatibak trebetasun- eta gaitasun-irizpide objektiboak ezarriko ditu langileak hautatu eta sustatzeko.

Hautaketarekin eta sustapenarekin lotutako erabakiak merezimenduan egongo dira oinarrituta, baita baldintza eta balorazio objektibo eta gardenetan ere. Langileek ezagutu egin beharko dituzte garapen eta aurrerapen profesionalerako erabiltzen diren metodologia eta prozedura.

Kooperatibak konpromisoa hartzen du beharrezko bitartekoak jartzeko, bere pertsonen ikasten eta prestatzen nahiz ezagutzak eta gaitasunak eguneratzen laguntzeko, beren karrera profesionalean aurrera egin dezaten, eta ahalik eta balio-ekarpenik handiena egin dezaten, bezeroen, kontsumitzaileen eta, oro har, gizartearen mesedetan.

d) Gardentasuna, objektibotasuna eta profesionaltasuna, jarduera guztien garapenean eta interes-taldeekiko harremanetan

Kooperatibak, bere langileek, laguntzaileek, zuzendariak eta administrazio-organoetako kideak **etikan, zintzotasunean, profesionaltasunean eta gardentasunean** oinarrituko dituzte beren arteko harremanak zein hirugarrenen artekoak:

Larramendi Ikastolako delituak prebenitzeko eskuliburua

Finantza-informazioaren fidagarritasuna

- Ezin dira faltsutu, ezkutatu edo simulatu kontabilitateko datuak, idazpenak eta eragiketak, eta ezin da kontabilitate bikoitza izan, helburua bada ordainketak ez egitea edo legez kanpoko mozkinak lortzea, Ogasun Publikoaren edo Gizarte Segurantzaren kaltetan.
- Kontratutako eragiketak **zehatz-mehatz eta zorrotz** kontabilizatuko dira, eta irizpide bera erabiliko da eskatutako artxibo eta erregistroekin. Kontabilitatearen ardura duten langileek Kooperatibaren ondarearen eta finantza-egoeraren irudi fidela hartu behar dute aintzat, kontabilitate-informazioa egitean.
- Une oro egokitzat jotzen diren **barne-kontrolak eta kudeaketa-sistemak** ezarriko dira, finantza-informazioaren fidagarritasuna eta erakundearen erregistroen zehaztasuna bermatzeko.

Lehiakideekiko harremanak

- **Lehia legitimoa eta zintzoa** egingo da, lehiakideak diren gizabanako edo erakundeei inolako kalterik egin gabe. Debekatuta dago lehia desleialaren jardunbide oro, eta aktiboki zainduko da Kooperatibak bere jarduerak egiten dituen herrialdeetan lehia defendatzeko aplikagarriak diren legeak betetzen direla.

Hornitzaileekiko harremanak

- Kooperatibako langileek harreman etikoa, legezkoa eta errespetuzkoa izango dute ondasunen eta zerbitzuen hornitzaileekin.
- Kooperatibarentzat lan egiten duten hornitzaileek konpromisoa hartu beharko dute, kontratatuta dituzten langile guztien giza eskubideak eta lan-eskubideak errespetatzeko.
- Erosketa- eta hornikuntza-jarduera orotan, zorrotz beteko dira konpainian indarrean diren arauak eta prozedurak. Esparru horretan hartutako erabaki guztiak onetsi egin behar dira; hau da, justifikagarriak, frogagarriak eta

Larramendi Ikastolako delituak prebenitzeko eskuliburua

egiaztagarriak izan beharko dute, hirugarrenek edo Kooperatibako kontrol-departamentuek berrikusten badituzte.

- Kooperatibako langileak behartuta daude konpainiak bere hornikuntza-katearen inguruan ezarritako baldintzei buruzko informazio komertzialki sentikorra babestera.
- Kooperatibako langileek ezin dute oparirik, hobaririk, mesederik edo ordainik eskaini, eman, eskatu edo onartu, edozein dela ere haien izaera, ez zuzenean ez zeharka, ez eskudirutan, ez gauzatan, baldin eta eragina izan badezakete beren karguaren eginkizunekin zerikusia duten erabakiak hartzeko prozesuan. Oparirik edo hobaririk jaso bada, itzuli egin beharko da; eta, itzuli ezin bada, Betearazpen Batzordeari emango zaio, interes sozialeko helburuetarako erabil dezan. Gainera, departamentu horrek jokabide hori izan duten konpainia guztien artxibo bat sortuko du.
- Salbuespen gisa, opariak ematea eta onartzea baimenduko da, inguruabar hauek aldi berean gertatzen direnean:
 - Balio ekonomiko oso txikia edo sinbolikoa izatea.
 - Kortesia-ko opariak edo publizitate-opariak izatea.
 - Legeak edo oro har onartuta dauden merkataritza-jarduerak debekatuta ez egotea.
 - Kooperatibari eskainitako bidaiak, hitzaldiak, azoketara joateko aukera eta abar onartuko dira, baldin eta Kooperatibarekin merkataritza-harremana ezartzea edo hobetzea bada helburua, langile jakin bati ez bazaizkio zuzenean ematen eta, betiere, alde aurretik onartzeko baimena ematen bada.

Bezeroekiko harremanak

- Merkataritza-jarduerak garatzean, Kooperatibako langileek estandar objektiboetan oinarrituta sustatuko dituzte Ikastolaren produktuak, haien baldintzak eta ezaugarriak faltsutu gabe. Sustapen-jarduerak argi eta garbi egingo dira, bezeroei edo hirugarrenei nahastea eragin diezaikekeen informazio faltsurik eta engainagarrikerik eman gabe.

Larramendi Ikastolako delituak prebenitzeko eskuliburua

- Kooperatibak marketin arduratsuaren irizpideen arabera egiten ditu sustapen- eta salmenta-ekintzak.
- Kooperatibak uneoro bermatu behar du bezeroen datuak isilpean eta babestuta gordeko direla. Kooperatibako langile guztiek bete behar dituzte indarreko legerian eta barne-araudian datu pertsonalei buruz ezarritako segurtasun-prozedurak. Ez zaie oparirik, gonbidapenik, hobaririk, zerbitzurik edo mesederik eskainiko ezein gizabanako edo erakunderi, baldin eta eragina izan badezakete haien merkataritza-harremanen edo harreman profesionalen objektibotasunean eta/edo inpartzialtasunean, Kooperatibaren eta haren inguruaren aldeko konpromiso bat edo mesede bat itzultzeko beharra sortzen badu, eta/edo iruzurra, legezketasunik eza, jardunbide ez-etikoak edo hirugarrenentzako kaltea ekartzen badute.
- Bezeroekiko harreman guztietan gardentasun-, objektibotasun- eta profesionaltasun-baldintzak betetze aldera, Kooperatibak **Babesletza-, laguntza- eta lankidetzak-politika** bat du, baita **Ustelkeriaren aurkako politika** ere, eta langile, zuzendari eta administrazio-organoetako kide guztiek nahitaez bete behar dituzte.

Agintariei laguntza ematea

- Kooperatibak (erakunde gisa) eta bertako langile, zuzendari eta administrazio-organoetako kide guztiek **laguntza emango diete** —behar bezala eta arduraz— **agintariei**, justiziari, erakunde publiko arautzaileei eta gainerako erakunde publikoei, eragozpenik eta trabarik jarri gabe, eta okerrik edo ez-egiterik sortu gabe. Gainera, dituzten harreman guztietan lana erraztuko diete, eta beharrezko eta/edo nahitaezko informazio guztiaren berri emango diete.

Interes-gatazkak

- **Interes-gatazkak** saihesteko, langileek, laguntzaileek, zuzendariek eta Kooperatibako administrazio-organoetako kideek ez dute interes ekonomikorik edo inolako interesik izango, eta ez dute jarduerarik egingo, Kooperatibarekin zerikusia duten enpresa edo erakundeekin. Halakorik



Larramendi Ikastolako delituak prebenitzeko eskuliburua

gertatuz gero, **Betearazpen Batzordeari jakinarazi** behar zaio, lege-aholkulariarekin batera ebaluatu eta, egoki iritziz gero, beharrezko neurriak hartu ditzan.

- Debehatuta dago gizabanako batek, Kooperatibaren duen posizioaz baliatuta, Kooperatibaren baliabideak, botereak, influentzia edo gainerako erraztasunak erabiltzea, bere onurarako edo bere ingurune hurbileko norbaiten onurarako. Halaber, guztiz debehatuta dago gizabanako edo erakunde batek Kooperatibaren izenean edo kontura jardutea, alde aurretik baimena lortu gabe, eta Kooperatibaren izena, bitartekoak, hirugarrenetik harremanak, posizioa edo influentzia erabiltzea, bere mesedetan edo bere ingurune hurbileko norbaiten mesedetan.

9.4.- Kooperatibaren aktiboak erabiltzea

Kooperatibak langileen esku jartzen ditu jarduera profesionalerako behar dituzten baliabideak (telefonoa, tableta, eramangarria, Internet-konexioa, posta elektronikoa, ibilgailuak, tresnak, laneko arropa eta abar). Hortaz, Kooperatibako langileek helburu profesionaletarako soilik erabiliko dituzte enpresaren baliabideak, eta egoki, arduraz eta efizientziaz.

Itxo horretan, Kooperatibako langileek ez dituzte, inola ere, konpainiak beren esku utzitako ekipamendu informatikoak honetarako erabiliko: legez kanpoko programak, aplikazioak edo edukiak instalatzeko edo deskargatzeko, konpainiaren arauak urratzen badituzte edo haren ospeari kalte egin badiezaiokete.

Langileek jakin behar dute Kooperatibako unitate eskudunek edo Kooperatibak izendatutako hirugarrenak gainbegiratu egin ditzaketela konpainiaren informazioaren teknologien sistema eta ekipamenduetan dauden dokumentuak eta datuak, beharrezkotzat jotzen denean eta indarrean diren araudian baimenduta dagoenean.

Gainera, Kooperatibako langileen ardura da instalazioak eta ekipamenduak egoera onean izatea, haien balio-bizitza luzatzeko eta istripuak saihesteko.

Larramendi Ikastolako delituak prebenitzeko eskuliburua

Berariaz debekatuta dago kooperatibako elementuak edo produktuak geletatik, patioetatik eta jangeletatik (landuak edo egin gabeak) kentzea, Zuzendaritzaren berariazko baimenik gabe (*Artezkaritza Kontseilua eguneraketa 2024-10-31*).

9.5.- Kooperatibaren kanpo aktiboak edo pertsonalak erabiltzea

Kooperatibako langileek ezin izango dute baliabide pertsonalik edo kooperatibaz kanpokorik erabili kooperatibatik kanpoko helburu pertsonal eta/edo beste profesionaletarako (telefonoa, tableta, eramangarria, Internet, posta elektronikoa, ibilgailuak, tresnak, laneko arropa, etab.), horretarako berariazko baimena edo premia sortu ezean.

Halakorik gertatuz gero, **Betearazpen Batzordeari jakinarazi** behar zaio, legeholkulariarekin batera ebaluatu eta, egoki iritziz gero, beharrezko neurriak har ditzan.

9.6.- Intimitatea, datuen babesa eta isilpeko informazioa

Langileen eta laguntzaileen **intimitaterako** eskubidea errespetatuko da. Datu pertsonalen eskaerari eta tratamenduari dagokienez, Kooperatibaren ohiko jarduerarako eta aplikatu beharreko araudia unean-unean betetzeko ezinbestekoa den informazioa mugatuko dira.

Kooperatibak beharrezko neurriak hartuko ditu, dauzkan datu pertsonalen **konfidentzialtasuna** zaintzeko, eta datu horien tratamendua eta datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko zein ezerezteko eta datuen aurka egiteko eskubideak arlo horretan indarrean dagoen legeriaren arabera gauzatzen direla bermatzeko. Kooperatibak konpromisoa hartzen du hirugarrenen **jabetza intelektual eta industrial**a babesteko.

Kooperatibaren jardueran, ezagutza eta informazio komertzialak sor daitezke, eta horien balioa zuhurtzian datza, neurri handi batean. Kooperatibako langileek diskrezioz eta profesionaltasunez erabiliko dute eskura duten informazioa, eta isilpean gordeko dute beren lanaren edukia. Nolanahi ere, ez dituzte beren mesederako erabiliko beren jardueran lortutako informazioa, datuak edo dokumentuak.



Larramendi Ikastolako delituak prebenitzeko eskuliburua

9.7.- Osasunarekiko, segurtasunarekiko eta ingurumenarekiko konpromisoa

Kooperatibak beharrezkoak diren jarduketa-planak ezarriko ditu bere jarduerarekin lotutako arriskuak behar bezala kudeatzeko eta arintzeko. Plan horiek aldi-aldi berrikusiko ditu, eta mantentzeko eta hobetzeko behar diren baliabideak jarriko.

Istripuak prebenitzea eta jardueraren garapenean segurtasuna bermatzea ezinbestekoak dira, Kooperatibaren jarduerarekin batera. Langileei eta laguntzaileei prestakuntza emango zaie, beren zereginak behar bezala bete ditzaten, eta, arlo guztietan, segurtasunari emango zaio lehentasuna. Halaber, segurtasun hori bermatzeko beharrezkoak diren baliabide guztiak emango zaizkie.

Kooperatibak **Lan-arriskuen prebentzio-plan** bat du, Kooperatibarentzat eta mendeko eta partaidetzako sozietateentzat, osasunarekin eta segurtasunarekin duen konpromisoa betez.

Kooperatibak baliabide naturalak errespetatuz gauzatuko du bere jarduna, eta ingurumenaren, biodibertsitatearen eta interes ekologiko, zientifiko edo kultural berezia duten espazioen kontserbazioa sustatuko du.

Zorrotz errespetatuko da ingurumenaren arloko legeria, eta prozesurik eta teknirik egokienak erabiliko dira jardueraren arriskuak identifikatzeko, jarduerarekin lotutako ingurumen-alderdiak (hondakinak, isurtzeak, atmosferarako emisioak...) kontrolatzeko eta txikitzeko, eta zerbitzua ematean sortzen den ingurumen-erantzukizuna bere gain hartzeko.

9.8.- Onartzea eta betetzea

Kooperatiban sartzen diren edo parte izatera pasatzen diren langileek **Kode Etiko hau ostatatuta dagoen web/hodeiko esteka jasoko dute lan-kontratuen klausula gisa** (era berean, idatziz eskatu ahal izango dute), eta **berariaz onartuko dute**, kontratuaren gainerako klausulekin batera, sartu aurretik. Kode Etikoa edo klausula horiek onartzen ez badira, ez da langile hori kontratatuko (*Artezkaritza Kontseiluko zuzenketa 2024-10-31*).



Larramendi Ikastolako delituak prebenitzeko eskuliburua

Kode honetan jasotako jokabideak **nahitaez bete beharrekoak** dira langile guztientzat, Kooperatiban gauzaten duten jarduera profesionalean. Gainera, betearazi egin beharko dira, eta, dagokionean, ez-betetzeak salatu. **Kode hau bete ezean**, indarrean den araudiaren arabera **zehapenak ezarri ahal izango dira**, arau-hauslearen gainerako erantzukizunak eskatzeko aukera baztertu gabe.

Kooperatibak **Betearazpen Batzorde** bat du, Kode Etikoa aplikatzean sortzen diren gertakariak izapidetu eta ebazteko, baita egindako salaketak bideratzeko ere. Orobat, kode honetako jarraibide guztiak betetzen direla ere zainduko du Betearazteko Batzordeak.

Kode hau haustea edo ez betetzea eragiten duten jokabideen berri duten langileek isilpean salatu ahal izango dute, kooperatibako web orriaren bidez, www.larramendi-ikastola.eus/buzoi etikoa.

Jasotako salaketa guztiak konfidentziasunez tratatuko dira.

9.9.- Egile Eskubideak

Langileen eta/edo bezeroen/hornitzaileen lan-kontratuen eta/edo merkataritza-kontratuen arabera egindako lan guztiak LARRAMENDI IKASTOLAren jabetzakoak izango dira eksklusiboki. Horretarako, kontratatuek ostatu bat izango dute hodeian (Google), ekipo informatikoak eta LARRAMENDI IKASTOLAK emandako gainerako materiala, baita helbide korporatibo bat ere. Era berean, irakasleen dedikazioa berezia denez, klausula honek ikastetxean edo ikastetxetik kanpo modu ez-presentzialean egindako lanak ere jasotzen ditu (*Artezkaritza Kontseilua eguneraketa 2024-10-31*).

10.- II ERANSKINA: EROSKETAK EGITEKO ETA HORNITZAILEAK HAUTATZEKO PROZEDURA

10.1.- Xedea eta irismena

Prozedura honetan, Kooperatibak hornidurak eta zerbitzuak erosteko eta kontrolatzeko erabiltzen duen metodologia jaso da.

Larramendi Ikastolako delituak prebenitzeko eskuliburua

10.2.- Erantzukizuna:

Departamentu guztiek izango dute prozedura hau betetzeko erantzukizuna. Gainera, zuzendari-kudeatzailea arduratuko da betetzen dela bermatzeaz.

10.3.- Prozedura

a) 10.000 euro gorako erosketak.

10.000 eurotik gorako erosketak politika honen arabera arautuko dira, eta **4.1. atalean (Eskaintza lehiakorrak eskatzea)** ezarritako baldintzak bete beharko dituzte.

Erosketa erabakia Artezkaritza Kontseiluarena izango da.

b) 500 euro gorako erosketak eta 10.000 euro beherako erosketak.

500 eurotik gorako eta 10.000 eurotik beherako erosketak politika honen arabera arautuko dira, eta **4.1. atalean (Eskaintza lehiakorrak eskatzea)** ezarritako baldintzak bete beharko dituzte.

Erosketa erabakia zuzendari kudeatzailearena izango da.

c) 500 euro beherako erosketak.

500 eurotik beherako erosketetarako, ez da beharrezkoa izango 4.1. atalean eskaintza lehiakorrak hautatzeari buruz xedatutakoa betetzea. Hala ere, prozedura honen 4.2. atalean ezarritakoari jarraituz, **erosketa alde aurretik homologatutako hornitzaileei** egin beharko zaie.

Erosketa erabakia administrari buruarena izango da.

10.4.- Hornitzaileak hautatzea

a) Eskaintza lehiakorrak eskatzea.



Larramendi Ikastolako delituak prebenitzeko eskuliburua

Ahal dela, gutxienez hiru hornitzaileari eskatuko zaizkie eskaintza lehiakorrek beti, eta idatziz egiaztatu beharko da jaso direla.

Hornitzaileak hautatzeko, alderdi hauek hartuko dira kontuan:

- Tokiko hornitzaileak lehenetsiko dira.
- Konfiantzazko hornitzaileak izango dira.
- Barnean gainbegiratutako hornitzaileak izango dira.
- Hornitzailea lehiakorra izango da kostuei dagokienez.
- Hornitzaileak zehaztapen zehatzei buruzko eskakizunak beteko ditu.
- Berehala erantzuteko gauza izango da.
- Euskararen erabilpena aintzat hartuko da.

Beharrezkoa da erosketa-erabaki guztiak baliorik handieneko alderdien konbinazio batean oinarritzea. Elementu horiek baloratu ostean, prezioaren arabera aukeratuko da hornitzailea.

Ezin bada eskaintza lehiakorrik eskatu, horren arrazoiak jaso beharko dira espedientearen memorian. Egoera hori kasu hauetan gerta daiteke: ondasunaren edo zerbitzuaren hornitzaile bat baino ez dagoenean, aldez aurretik egindako proiektuen fase berrien kasuan, hornitzailearekin lehendik sinatutako kontratuak daudenean eta abar.

b) Hornitzaileen alta eta homologazio prozedura

Zuzendari kudeatzaileak onartuko ditu hornitzaileak, eta administrazio buruak alta emango die sisteman.

Hona hemen hornitzaile bati alta emateko jaso beharrekoak:

- hornitzaile-mota eta altaren arrazoa
- banku-titulartasunaren ziurtagiria
- kaudimen ekonomikoaren ebidentzia

Alta-eskaera hornitzaileen alta liburuan jasoko da.



Larramendi Ikastolako delituak prebenitzeko eskuliburua

Hornitzaileen alta guztiak zuzendaritzak onartu behar ditu.

c) Erosketen eta kontratazioen jarraipena

Erositako materialak jaso eta egiaztatzean edo emandako zerbitzuak amaitzean, albarana emango zaio kontabilitate/administrazioko arduradunari. Zerbitzuak eta/edo obrak emanez gero, emandako zerbitzuen jarraipena eta harrera egingo ditu eskatzaileak. Kontratututako obra edo zerbitzua amaitzean, eskatzaileak kontratuaren garapena ebaluatuko du.

d) Fakturak onartzea

Ondasun edo zerbitzuen erosketa edo kontratazioengatik hornitzaileek igorritako fakturak 7 egunean onartu beharko dira, eta jaso eta gehienez 30 egun naturaleko epean ordaindu, sisteman kontabilizatuak izan direnetik kontuan hartuta.

Administrazio buruak fakturak egiaztatu eta, ados badago, oniritzia emango die eta kontabilizatuko ditu.

e) Erregistroa eta artxiboa

Sozietateak artxibatu egingo ditu erosketa-prozesuan sortutako erregistro guztiak, eta horien kopia bat gordeko du: erosketa-eskaerak, hornitzaileen eskaintzak, erosketa-eskabideak eta hornitzaileen albaranak.

10.5.- Prozedura ez betetzea

Erosketak egiteko eta hornitzaileak hautatzeko prozedura nahitaez bete behar dute langile guztiek.

Prozedura hau haustea edo ez betetzea eragiten duten jokabideen berri duten langileek isilpean salatu ahal izango dute, Kooperatibako web orrian: www.larramendi-ikastola.eus/buzoi etikoa.

Larramendi Ikastolako delituak prebenitzeko eskuliburua

Jasotako salaketa guztiak konfidentziasunez tratatuko dira.

11.- III ERANSKINA: BARNE INFORMAZIO SISTEMAREN POLITIKA

11.1.- Xedea

Barneko Informazio Sistemaren Politikaren xedea da ezarritako printzipio orokorrak eta Larramendi Ikastola Kooperatibak hartutako konpromiso nagusiak zehaztea, 2023ko otsailaren 20ko 2/2023 Legea, arau-hausteei eta ustelkeriaren aurkako borrokari buruzko informazioa ematen duten pertsonak babesteari buruzkoa, betetzeko. Horretarako, barne-antolamendua eta beharrezko sistemak ezarriko dira, zehapenen komunikazioa, izapidetzea, ikerketa eta, dagokionean, aplikazioa bermatzeko, egitez edo ez egitez Kode Etikoa, barne-araudia eta kanpo-araudia ez betetzea dakarten jarduketetan, eta/edo delituak egiteko arriskua dutenetan (bereziki, delitua, arau-hauste administratibo larria edo oso larria eta Europar Batasuneko zuzenbidearen urraketa dakarren jokabide oro).

11.2.- Aplikazio-eremua

